

## Artxibo gogotsua

1994an Londresen, Jaques Derridak *Memoria: artxiboen gaia* nazioarteko sinposioaren barruan eskaini zuen hitzaldian, *Artxiboaren kontzeptua: freudtar inpresioa*, artxiboa memoriaren erabilerarekiko egitura akats bat zela aipatu zuen, hil-irrika bere horretan errealitatea erregistratzeko desira bera mugitzen duen mehatxua eta motorra dela. Hitzaldi hori argitaratzean, Derridak izenburua aldatzea erabaki zuen: *Artxiboaren gaitza: freudtar inpresioa*<sup>1</sup>.

Neil Cummings-en eta Marysia Lewandowska-ren praktika artistikoaz geroztik, bereziki euren ekoizpen berrienaz geroztik, *Gogo*a, artxibotik eredu artistiko gisa ateratako inplikazio kontzeptualetako batzuk aztertzen dira. Jarraian garatzen den azterketa Arte Kontzeptualetik datozen alde aurreko adierazpenak dituen egitura-formatu horren eta Kritika Instituzionala<sup>2</sup> deritzonaren artean ezartzen den eraginean oinarritzen da. Hemen defendatzen den artxiboaren ideiak aintzakotzat hartzen ditu gailu fisikoa, metodo gisa, nahiz Derridaren erabilera bera duen *artxiboaren pultsioa*.

Neil Cummingsen eta Marysia Lewandoswkaren *Gogo*a Polonian, aro komunistan, ezarritako zinema amateurrari eta zine-klubaren sareari buruzko ikerketa batetik sortutako lan multzoaren zati bat da. Erakusketak bilera gela baten barnealdearen berreraikuntza akatsgabea du, baita hiru proiektio gela berreraikuntza ere, beste eskenatoki posible batera garamatzen izoztutako eszenaratze multzo gisa: Polonia sozialistaren paisaia politiko aldakorra, berrogeita hamarrek hamarkadatik laurogeikora. Kontzeptualki, proiektua zine-klubaren irudikapenean eta bere jardueran oinarritzen da, *ready-made* bat balitz bezala. Cummingsen eta Lewandowskaren esku-hartze artistikoa berreraikuntza horren diseinuan adierazten da; hiru programatan antolatutako pelikula multzo baten hautaketa, honako izenburu hauekin: maitasuna, desira, lana; artxibo gela baten antolamendua, bisitariak euren programa sortzeko eta material hori *Creative Commons*-en eskubideen mende erregistratzeko.

*Gogo*a-ren kutsu artxibatzaile eta dokumentalak Cummingsen eta Lewandowskaren aurreko proiektuen jarraipena baieztatzen du, esaterako, *Not Hansard: the common wealth* (2000). Bertan, tokiko klubek, afizionatu taldeek, bildumazaleek eta elkarteek auto-ordezkaritza edo *Free Trade* (2003) ariketa propio gisa ekoiztutako dokumentu grafikoak pilatzen zituzten eta horietan, artearen eta kapitalaren loturak aztertzen zituzten, Manchester Art Gallery-ko bildumaren bitartez. Artista horiek formatu horretan narratiba partikularrak baino gehiago, lurraldeak eraikitze aukera ikusten dute, edo interpretazioa egunerokoaren azterketa-prozesu amaigabe gisa sustatzeko gaitasuna<sup>3</sup>.

*Izenburua: Sisyphus 1971*  
*Egilea: T.Wudzki*  
*88mm, 5'30, B&W*  
*Kortesia: AKF Wiedza, Warszawa*

*Gogo*a-k erakusketa gailu gisa eta zinema amateurren artxi-  
bo eraginkor gisa funtzionatzen du. Izan ere, proiektu hori  
Poloniako beste estatu bildumen katalogaziotik kanpoko  
film-material ororen gaineko ikerketa-lan batetik hasi zen.  
Formatu horren egitura teknikoari dagokionez, Derridak  
adierazten zuen artxibatzeak, erregistratzeaz gain, gertaera  
sortu egiten duela<sup>4</sup>. Horrekin dokumentuaren sorkuntzaren  
eta etorkizunarekiko harremanaren artean lotura ezartzen zuen.  
Idea hori interesgarria da Cummingsen eta Lwandowskaren  
proiektua bi une oso ezberdinetan eratorri dela egiaztatzean.  
Batetik, *Gogotsu* izenburupean, Varsoviako Centre for  
Contemporary Art-en izandako inaugurazioa, testuinguru kul-  
tural eta sozialari loturik zinemagile amateurren subjektibota-  
suna indartzen zuena. Bestetik, *Gogo*a-ren aurkezpena  
Londresko Whitechapelen, Berlingo KWN eta Bartzelonako  
Fundació Tàpies-en. Bertan, motibazio-indar gogotsu kolekti-  
botik abiatzen da, kontrakulturaren eragile gisa sistema  
sozialistan. Bigarren fase horretan, beste ikuspuntu sozial eta  
kultural garaikidetatik egindako berrinterpretazioaren balioak  
indartu egiten du sozialismoaren eta beranduko kapitalismoa-  
ren arteko irudikapenaren arazoa.

Poloniako Errepublikan Popularrean sortutako zine-klubak  
langileei eguneroko bizitza filmean harrapatzeko beharrezko  
materiala ematen zitzaaien lantegiei lotutako erakundeak  
ziren. Horrela, egileak autonomiaz eta era kolektiboan  
sartzen ziren ekoizpen bideetan. Artistek proiektu horretarako  
hautatutako materialak egunerokoaren genealogia izan daite-  
keena jasotzen du tresna subertsibo gisa. Arreta amateur  
gogotsuan beran jartzen dute, ekoizpenaren xedea denaren  
aurrean duen afizionatu jarrerari dagokionez. Irrika pertsonalek  
gidatutako jarduera aisialdiaren eta lanaren arteko denbo-  
razko dualtasun nabarmen batean inskribatuta agertzen da.  
Baldintza horien aurrean, bere motibazioa, egunerokoa bal-  
dintzatu gabe irudikatzea lortzeko desirara zuzentzen zen;  
espazio kritiko, autonomo eta auto-irudika-penezkoa erai-  
kitzeko konpromisoa, eta bizitza sozialaren erregistroa  
ekintza historikoaren tranpen aurrean kontrolatzeko premia.

Krzysztof Kiéskowskik 1979an burututako *Camera Buff*-ek  
(Kamera-amateurra) hirurogeita hamarreko hamarkadan  
erakunde horietan garatutako jarduerari buruzko fikzio-ikus-  
puntu bat eskaintzen digu. Pelikula Filip Moszek bere seme  
jaioberria grabatzeko filmagailu bat erosten duenean hasten  
da. Geroago, lantegiko zuzendariak langileei buruzko peliku-  
lak egiteko proposatzen dio eta zine-kluba antolatzeko  
enkargua ematen dio. Pixkanaka jabetuz grabaketa erreali-



Irrika pertsonalek gidatutako jarduera aisialdiaren eta lanaren arteko denborazko dualtasun nabarmen batean inskribatuta agertzen da.

tatean sartzeak duen indarrak eta horrek ohikoaren utopian duen eragin negatiboaz, Filipek kamera bereganantz jiratzten du, erretratu soziala bere erretratu propioaz ordezkatzeko. Pelikula horren estreinaldia *Gogoa*-ren artxiboko gelan agertzen da, eta Whitechapel Galleryn egindako aurkezpenean hitzaldien gelan modu paraleloan proiektatu da. Afizionatuaren edo profesionalaren ekoizpenaren arteko erreferentzi-gurutzatzeak, baita dokumentuaren eta fikzioaren artekoak ere, zine-klub horien litekeen jarduera gogotsuan ezarritako korapilo morala berreskuratzeko aukera ematen dio bisitariari: grabaketaren indar dialektikoa (objektiboa/subjektiboa den) tresna edo mehatxu bihurtzen da sistema sozialistaren logika hauskorren aurrean.

Industria ondoko testuinguruan, aisialdiaren eta lanaren arteko banaketa geroz eta lausoagoa da; horrek eragotzi egiten digu eremu sozialaren gaineko gogoaren egungo balioa argitasunez definitzea.

Aisialdian garatutako Polonia sozialistako zinemagile amateurraren sortzeko gaitasunak ordain kultural bat eragin zuen. Gaur egun, motibazio horrek berak lana era argian ordezkatzeko ekar dezake eta kapital garaikiderako baliabide berri bihurtzeko. Merkatu libreko gizarte batean, amateur berriak etengabe aztertu beharko du soziala den orori gerturatzeko modu informala.

## Artxiboko materiala *Creative Commons*-en arauen pean

Neil Cummings-ek eta Marysia Lewandowsk-ak, pelikulen egileekin batera, *Gogoa*-n bildutako materiala *Creative Commons* lizentzia pean erregistratzea erabaki dute. Beraien asmoa bilduma kokatzea da estatuko zinema amateurraren artxibo zaharrekiko oposizio eta kontrastezko espazio berri batean. Artxibo horiek pribatizatu egin dira eta diru kopuru handia kobratzen dute materiala eskuratzeko edo erreproduktzio eskubideengatik. *Gogoa*-ren interesa iturri ireki gisa eratzeko da, hau da, digitalizatuko den eta *online* eskuratzeko moduan egongo den emandako pelikula multzo bat izango da, ez ikusteko bakarrik, baizik eta etorkizuneko zinemagileek baliabide material gisa erabili ahal izateko<sup>5</sup>.

*Creative Commons*-ekin batera *open source* mugimendua copyrightaren diskurtso nagusiarekiko aurkakotasun indartsu baten espazio gisa azaleratzen ari da. Bada, era alternatiboan ezagutzaren ekoizpena eta banaketa zalantzan jartzen ditu<sup>6</sup>. *Artxibo gogotsua*-k, *Creative Commons*-en arauen pean, eragin zuen laguntza-motibazioa itzultzen dio material horri. Era berean, partaidetza aktiboa ematen die egileei, pelikulen etorkizuneko erabilerei, aldaketei eta banaketei buruz erabakiak hartzean. ❧

LEIRE VERGARA komisario independente eta ikertzailea da, Bilbon bizi da. Peio Agirrerekin batera, 2002tik egoitza Donostian duen D.A.E.-ko (Donostiako Arte Ekinbideak) ekoizpen artistikoaren egitura zuzendu du.

Testu hontan azaltzen diren irudiak *Creative Commons* lizentziapean banatzen dira: Atribuzioa-EzKomertziala-BerdinBanatu 2.0.

### OHARRAK & ERREFERENTZIAK

1 DERRIDA, J. *Archive Fever: A Freudian Impression*, Chicago : The University of Chicago Press, 1995.

2 Ideia horrekin loturik, artxiboak artea sortu, banatu eta kontsumitzen den egituren azterketa kritikoa errazten duen diskurtso-esparru gisa funtzionatzen du. Ikuskera horrek "kultura materialaren esparruari" hurbilketa berri bat gehitzen dio, eta hausnarketa ireki bat eskaintzen du helburu artistikoari eta horrek erakundearekin eta errealitatearen beste egoera batzuekin duen harremanari buruz.

3 CUMMINGS, N. eta LEWANDOWSKA M. *Enthusiasm*, London : Whitechapel, Berlin : KW Institute for Contemporary Art, Bartzelona : Fundació Tàpies, 2005.

4 DERRIDA, J. Op.cit. 17. orria.

5 CUMMINGS, N. eta LEWANDOWSKA, M. Op.cit. 27. orria.

6 LIANG, L. *Guide to open content licences*, Rotterdam : Piet Zwart Institute, 2004.